



Eskola Publikoan pertsona ardatz

Uzt. 03 - Uzt. 05 2023

Kod. H09-23

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 03 - Uzt. 05 2023

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaro honetan, aurreko ikasturtean proposatutakoari jarraipena ematea da gure helburua. XXI.mendean Eskola Publikoak aritu ginen eta aurreko ere guzti honetaz arituko gara. Eskola Publikoak bere ahalduzko prozesuan jarraitzen eta begibistakoa da eskolaren ekosistema aldatuz joan dela eta datozen urteetan are gehiago aldatuko dela.

Hezkuntza eta hezkuntzari buruzko hausnarketa, iritzi andana eta proposamen desberdinak plazaratzen ari dira gure gizartean eta guk, ikastaro honen bidez, fokua PERTSONETAN jarri nahi dugu. Hezkuntza zerbait bada, pertsonen arteko interakzioz betetako jarduna da eta horrek ezinbestean pertsonak - ikasleak, irakasleak, zuzendaritzetako kideak, gurasoak,...- zaintzera eta pertsonengan erreparatzera eraman behar gaitu, hezkuntza eta heziketa arrakastatsua izatea nahi badugu.

HEIZEk antolatzen duen ikastaro honetan, beti ere ikasleari eta familiari eskaini diezaiekegun onena buruan dugula, gai hauek izango ditugu hizketagai:

- 1.- Ikastetxe publiko batzuren antolaketa molde berriak. IPIak eta euren zergatiak.
- 2.- Ikastetxe publikoetan ETAPEN ARTEKO loturak nola bideratu. Abantailak eta eragozpenak.
- 3.- Zuzendaritza talde egonkorrek ikasleriaren arrakastan duten eragina.
- 4.- Ikerketaren eta Unibertsitatearen laguntzarekin, ikerlarien lanak plazaratuko ditugu.
- 5.- Irakaslegai diren formazioa eta zuzendaritza taldeen formazioa aztertuko ditugu. Zer da egiten duguna eta zer da egin beharko genukeena

Guzti hau garatzeko molde hirukoitza erabiliko dugu:

- 1.- Geure burua janzteko hitzaldiak: alor bakoitzean arituak eta adituak direnak.
- 2.- Ikastetxeentzat inspiratzaile izan daitezkeen "praktika-onak". Egin daiteke, beraz egingo dugu!!
- 3.- Ikastetxeen arteko solasaldi-gunea izatea nahi dugu ikastaro hau. Denok dugu zer ikasi eta denok dugu zer irakatsi!!
- 4.- Eta bukatzeko, ikastaroaren egun bakoitzean, ordu eta erdiko saioa antolatuko dugu " Bertaratutakoekin elkarrizketan" izenekoak. Egun bakoitzean landu nahi dugun ardatzaren inguruan hausnarketa kolektiboa bultzatu nahi dugu.

Helburuak

Pertsonak erdigunean jarrita, XXI.mendeko Eskola Publikoaren antolaketa eta bertan arituko diren profesionalen formazioa aztergai jarri.

Eskola Publikoak, gizartearen eskaerei egoki erantzuteko behar beharrezkoa duen gobernatza-ereduaz hausnar egin.

Ikasleriaren heziketa arrakastatsua lortzeko Hezkuntza Komunitatearen eta inguruko gizartearen eta herritarren rolak eta erantzukizunak plazaratu.

Hezkuntzan, etapan arteko lotura eraginkorrek egitearen onurak aztertu. Zailtasunak eta Aukerak plazaratu. Indarguneen eta mehatxuen kontzientzia hartu.

XXI.mendeko gizarteak - familiak, ikasleak, herritarrak - eskolari eskatzen diona ezagutu eta eskolaren antolaketa berriak antzeman.

Ikastaroa bera hausnarketa kolektiboa egiteko gune bihurtu. Irtenbideak ere, elkarrekin, errazago aurkituko ditugu.

Lankidetzak



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Programa

2023-07-03

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Josu Etxaburu Osa HEIZE - Koordinazio teknikoa
09:25 - 10:30	“Hezkuntza Sailak proposatutako antolaketa eta zergatiak. Ikastetxe publikoen berrantolaketa” Begoña Pedrosa Lobato Hezkuntza Saila - Sailburuordea
10:30 - 11:30	“Hezkuntzan, etapen arteko loturak. Zergatik eta zertarako?” Iñigo Salaberria Aliaga HEIZE - Presidentea
11:30 - 11:45	Atsedena
11:45 - 13:15	“Jarduera partehartzailea 1 “ Bertaratutakoekin elkarrizketan 1 Josebe Azpiri Akarregi Zaldupe Eskola (Ondarroa) - Zuzendaria Bertaratutakoekin elkarrizketan 1 Saioa Landa Lazcano Orokieta Eskola (Zarautz) - Zuzendaritza taldeko kidea
13:15 - 14:00	“Praktika ona 1. Etapen arteko loturak nola bideratu: abantailak eta eragozpenak” Puy Garcia Tartas Ikasbidea Ikastola IPI - Zuzendari-ohia Anaje Ferreira Inza Ikasbidea Ikastola IPI - Ikasketa Burua Jorge Domezain del Campo Ikasbidea Ikastola IPI - Irakaslea
14:00 - 14:30	Jardunaldiaren sintesia (Josu Etxaburu Osa)

2023-07-04

09:00 - 10:15	“Zuzendaritzaren eta zuzendaritza taldearen garrantzia.” Maialen Oiartzun Irastorza UPV/ EHU - Ikertzailea
10:15 - 10:30	Atsedena
10:30 - 11:30	“Ikasleriaren arrakasta eta zuzendaritza egonkorrak. Eragin zuzenak eta zeharkakoak “ Birginia Pozo Gonzalez Berritzegune Nagusia - Zuzendaria
11:30 - 11:45	Atsedena

11:45 - 12:30 "Praktika ona 2. Zuzendaritza berrien formazioa. Zuzendaritza lanetan aritzeko kompetentzien garapena"

Aitor Santxo Falcon | Berritzegune Nagusia - Formazio arduraduna

12:30 - 14:00 "Jarduera partehartzailea 2"

Bertaratutakoekin elkarrizketan 2

Idoia Pujana Uriarte | Botikazar BHI (Bilbo) - Zuzendaria

Bertaratutakoekin elkarrizketan 2

Iñigo Salaberria Aliaga | HEIZE - Presidentea

14:00 - 14:30 **Jardunaldiaren sintesia (Josu Etxaburu Osa)**

2023-07-05

09:00 - 10:30 "Jarduera partehartzailea 3"

Bertaratutakoekin elkarrizketan (3)

Iñigo Salaberria Aliaga | HEIZE - Presidentea

10:30 - 11:00 Atsedena

11:00 - 12:00 "Hezkuntza lidergoa eta lidergo digitala hezkuntzan: Irakasleen formazioa"

Urtza Garay Ruiz | UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatea - Dekanoa

12:00 - 12:45 "Praktika ona 3. XXI. mendeko Ikasleria. Zeri erantzun behar diogu?"

Saioa Landa Lazcano | HEIZE - Koordinatzailea

12:45 - 13:15 "Praktika ona 4. XXI. mendeko familiak. Zeri erantzun behar diogu?"

Lurdes Imaz Gorostidi | EHIGE - Koordinatzailea

13:15 - 14:00 Mahai ingurua: "Pertsona ardatz. Zer hartu behar dugu kontuan ikasleriari eta familiei erantzun egokiena emateko?"

Josu Etxaburu Osa | HEIZE - Koordinazio teknikoa (Moderatzailea)

Lurdes Imaz Gorostidi | EHIGE - Koordinatzailea

Saioa Landa Lazcano | HEIZE - Koordinatzailea

Iñigo Salaberria Aliaga | HEIZE - Presidentea

14:00 - 14:30 **Jardunaldiaren sintesia (Josu Etxaburu Osa)**

Zuzendaritza



Josu Etxaburu Osa

HEIZE, Zuzendari-ohia

JOSU ETXABURU OSA - Ondarroan jaioa 1961ean - Magisteritza ikasketak Filologia alorrean. - Euskal Filologia ikasketak egin. - Ikastetxeen zuzendaritzan Graduondoa - Euskal Kulturen Graduondoa - Linguistikan Masterra IBILBIDE PROFESIONALA: - Irakaskuntza munduan ibilbide luzea: 32 urte - Ibilbide honetan, itunpeko ikastetxean, irakaskuntza kooperatiban eta Irakaskuntza Publikoan aritua - Azken 20 ikasturteak Elorrio Institutuan Euskara eta Teknologia irakasle gisa. - Urte betez Berritzegune Nagusian "Lidergoa eta Kalitatea ikastetxe publikoetan" lantaldeko arduraduna ZUZENDARITZAN IBILIBIDEA: - 3 urte Lea-Artibai Teknik Ikastetxeko Ikasketaburua. - 16 urte Elorrio Institutuko zuzendari - DANTZERTiko (Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola) zuzendari BESTE ERANTZUKIZUN BATZUK: - 15urteetan BIHEko (Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Zuzendarien Elkarte) presidente. - 2 urteetan HEIZEko (Herri Ikastetxeetako Zuzendari/Zuzendaritza Taldeen Elkarte) presidente

Irakasleak



Josebe Azpiri Akarregi


Ondarroan jaio nintzen 1976an. Donostiako irakasle eskolan ikasi nuen magisteritza, atzerriko hizkuntza espezialitatean. 98an ikasketak bukatu eta urte berean hasi nintzen lanean irakaskuntzan. Alde batetik bestera, hamaika eskola eta errealitate ezagutuz. Esanguratsuak guztiak baina betirako markatuko nautenak Zarauzko Orokieta herri eskolan pasatako 10 urteak, azken zortziak zuzendari moduan. Bitartean, Pedagogia Sistemikoko masterra egin nuen, bizitzari eta era berean eskolari beste begirada bat eskaintzeko ahaleginean. Aurten 4. ikasturtea da Ondarroako Zaldupe eskolan hasi nintzela lanean, hemen ere zuzendari.



Jorge Domezain del Campo



Anaje Ferreira Inza



Urtza Garay Ruiz

UPV/EHU , Directora de Innovación Metodológica



Puy Garcia Tartas



Lurdes Imaz Gorostidi

EHIGE



Saioa Landa Lazcano

OROKIETA HERRI ESKOLA, IDAZKARIA


Zarautzen jaio nintzen 1976.urtean . 1994.urtean erizain laguntzaile titulua atera nuen eta eta 1995.urtean Donostiako irakasle eskolan hasi nintzen magisteritza ikasten, hezkuntza bereziko espezialitatean. 1998an ikasketak bukatu eta hilabete batzuk Pagoetako Parke Naturalean aritu nintzen ikasleei bisita gidatuak egiten.1996an hasi nintzen irakaskuntzan, Nafarroan hasieran eta Gipuzkoan ondoren. 2008.urteetik aurrera Orokieta herri eskolan egon naiz lanean eta 2011.urteetik honaino zuzendaritza taldean egon naiz ikasketa buru moduan eta azken proiektualdi honetan idazkari moduan.



Maialen Oiartzun Irastorza

UPV/EHU

Lehen Hezkuntzako graduatua (2017) eta Gizarte eta Hezkuntza Arloko Ikerketako masterra (2018) Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslea eta IkasGaraian ikerketa taldeko kidea. Bertan, honako doktore-tesia egiten ari da: “Irakasle onenak kalitateko eskolarako: lanbiderako sarbidearen diagnostikoa eta proposamenak euskal eskola publikorako”.



Begoña Pedrosa Lobato

Begoña Pedrosa (Areatza, 1975). Licenciada en Filología Inglesa (Universidad de Deusto, 1997) Máster en Lingüística (Master of Arts, University of Illinois, EEUU, 1999). Doctora en Lingüística Aplicada (Universidad del País Vasco, 2011). MBA Executive en Mondragon Unibertsitatea (2017). Experiencia en Mondragon Unibertsitatea desde 2002 hasta la actualidad: • Trayectoria de docencia en Grado en Educación Primaria y Educación Infantil, Trayectoria en Lengua Extranjera y Grado Audiovisual. Ha creado y coordinado diferentes grupos en el ámbito de la innovación. • Ha desarrollado su trayectoria investigadora en el grupo de investigación BAHÍ-IALE en las siguientes líneas de investigación: desarrollo de la competencia plurilingüe en contextos de lenguas minoritarias, estrategias pedagógicas en contextos CLIL y actitudes del alumnado respecto al aprendizaje de lenguas. • Trayectoria de gestión: decana de Humanidades y Ciencias de la Educación desde 2014.



Birginia Pozo Gonzalez

Hezkuntza Saila, Zuzendaria

Feminista, ingeleseko maistra eta psicopedagogian lizentziaduna naiz (orden horretan). Eskolako Publikoan hazi nintzen. 2006 urte tik Hezkuntza Publikoan (eta publikoaren alde) lanean. Euskal Eskola Publiko inklusibo eta feministia baten alde lan egiten dut egunero (saiaitzen naiz behintzat). Momentu honetan Berritzegune Nagusiko zuzendaria naiz.



Idoia Pujana Uriarte

Botikazar BHI

Idoia Pujana Uriarte- Usansolon jaioa 1971ean –Farmazia Fakultatean ikasketak (Gasteiz, EHU) Elikagaien Zientzia eta Teknologia alorrean. – Doktoretza ikasketak Medikuntza Fakultatean (Leioa, EHU)- 2002an Tesia irakurrita- Egonaldian “Institute of Biotechnology” (Helsinki, Finland), “Institut Pateur” (Paris, Frantzia) IBILBIDE PROFESIONALA: - Hogeita bi urte irakaskuntza munduan. Ibilbide honetan, Lanbide Heziketako irakaslea , EHuko Irakasle Elkartua (Medikuntza eta Zientzia Fakultatetan) eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea. ZUZENDARITZAN IBILIBIDEA: - Hamabi urte Botikazar BHiko Zuzendaritza Taldeko kidea (Idazkaria eta Nazioarteko Proiektuen Arduraduna). Azkeneko bi urtetan Botikazar BHiko Zuzendaria.



Iñigo Salaberria Aliaga

Heize, euskal eskola publiko ikastetxeen elkartea, Presidentea

Musika ikasketekin batera EHUn Magisteritza eskolako Musika espezialista formakuntza jaso ondoren disziplina anitzetan jardun izan da. Lezo Herri Eskolako zuzendaritza ardurak izan ondoren EAEko ikastetxe publikoen Heize elkarteko sorreratik koordinazio taldeko kidea.



Aitor Santxo Falcon

Ikasbide Ikastola

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-05-31 ARTE	2023-07-03 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	81,00 EUR
Orokorra	-	116,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	98,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	81,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jauriaritza	-	98,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	98,00 EUR
Elkar	-	98,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	-	98,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa